

9. GIZARTE EKIMENAREKIKO ELKARLANA

9.1. Irabazi asmorik gabeko elkarteetarako diru laguntzak

Gizarte ekintzaren Zuzendaritzak bultzatzen dituen laguntza ekonomikoen helburua elkarteei laguntzea da, gizarte ekintzaren arloan egiten duten elkarteen lana bermatuz. Aurkezten diren proiektuen helburu zehatzak orain adierazten ditugun motatakoak izan daitezke:

- Elkarteen eguneko jardueraren mantentzea
- Sentsibilizazio eta gizarteratze ekintzak. Era berezian gizarte arloko boluntarioak lortu eta trebatzera zuzendutako ekintzak
- Elkarrekin ekintzen helburu diren kolektiboek zuzenduta dauden esku-hartze programak hedatu. Era berezian, boluntarioek egiten dituzten ekintzak kontutan hartzen dira.

2019ko uztailaren 16an Tokiko Gobernu Batzarrak 280.000 € -ko laguntza ekonomikoa ematea erabaki zuen gizarte ekintzaren arloan diharduten irabazi asmorik gabeko 85 elkarteri 123 proiektu diruz lagunduz.

Lehenengo eranskinean, 2019an diruz lagundutako elkarte eta proiektuak zehaztuta agertzen dira.

9.2. Elkarlanerako hitzarmenak elkarte eta erakundeekin

2019an, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak **elkarlan hitzarmenak** sinatu ditu hurrengo erakunde hauekin:

HURKOA Fundazioa

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzarekin elkarlanean, ezgaitze eta/edo tutoretza prozesuak hasi behar diren kasuetan aritzeko.

2019ko lankidetzeta-hitzarmenak jasotzen duen kopurua 9.550 eurokoa da.

NAGUSILAN eta GURUTZE GORRIA

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzarekin elkarlanean, adinekoei eta pertsona ezgaituei konpainia eta etxean laguntzeko ekintzetan aritzeko.

Bi Hitzarmenetan diru-kopuru bera jasotzen zen, 9.280 euro, hain zuzen ere.

DYA

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzarekin elkarlanean, pertsonen eta taldeen garraio beharrak betetzeko, Udalaren gizarte lanaren edozein esparrutan.

2019ko lankidetzeta-hitzarmenak jasotzen duen kopurua 9.280 eurokoa da.

AFAGI (Alzheimerra dutenen Senitartekoen Gipuzkoako Elkarte)

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzarekin lankidetzan, psikoestimulazio kognitiboko prebentzio programa bat hedatzeko. Alzheimerraren hasierako fasean dauden edo beste dementsia sindrome bat diagnostikatuta duten adinekoentzat zuzenduta.

2019ko lankidetzeta-hitzarmenak jasotzen duen kopurua 41.000 eurokoa da.

ELKARTU (Gutxitasun Fisikoa duten pertsonen Gipuzkoako Federazio Koordinatzailea)

ELKARTUk 2019ko azaroaren 7 eta 8an Kursaal-en antolatutako "Desgaitasuna, Eskubideak eta Inklusioa" nazioarteko Kongresurako. Kongresuak ELKARTUren 40. urteurrenaren aldarrikatzea izan du helburu.

Lankidetzeta Hitzarmenean jasotako laguntzaren zenbatekoa 15.000 eurokoa izan da.

9.3. Irabazi asmorik gabeko elkarten egoitzetarako edota beraien jarduerak burutzeko lokalak lagatzea

Donostiako Udalak bere lankidetzak eskaintzen dio ***hainbat elkarteri lokalak eskuratuz*** Donostian bertan beraien jarduera garatzeko aukera izan dezaten

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza gizarte arloan lan egiten duten erakundeen alde egindako 18 lokal lagapenen arduraduna da.